

Hernanik kronika.net

DYAk 25 urteurreneko bazkaria antolatu du lanean aritu diren herritarrekin
2007/12/05 - Asteazkena

DYAk Hernanin duen ordezkariak 25 urte bete ditu, eta ospatzeko, urte hauetan lanean eta laguntzen izan diren herritarrak bilduko ditu bazkari batean. Bazkaria abenduaren 16an izango da eta izena hilaren 12a aurretik eman behar da, 943 46 46 22 telefonoan. DYAk azaldu du 500 herritar izan direla urte hauetan lanean, sorosle, erizain eta sendagileen artean. Milaka larrialdietan izan dira eta kirol, kultur eta aisialdi jardueretan osasun eta zaintza zerbitzuak ere eskaini dituzte, azaldu dutenez. Horrez gain, herritar hauek sorospen ikastaroak ematen, pertsona heldu eta ezinduen zaintzan, eta orohar gizarte arloan lan garrantzitsua egin dutela adierazi du DYAk.

 [Zabaldu!](#)

- [Atzera egin](#) |
- [Inprimatu](#) |
- [Norbaiti bidali](#)